



BERGARAKO PLAN ESTRATEGIKOA

2010-2020



Aurkibidea

Helburu orokorra eta baloreak	57
Ardatzak	58
1. Herrigintza	58
2. Sozioekonomia	61
3. Ingurumena	64
4. Hezkuntza	67
5. Hizkuntza eta identitatea	69
6. Lurraldearen antolamendua	70
7. Kultura eta kirola	73

Helburu orokorra eta balioak

Helburu orokorra: nolako Bergara nahi dugu?

Bergara nortasun propioa duen herria¹ izatea, bizia, kohesionatua, atsegina eta autogestionatua.

- **Nortasuna:** herriaren nortasuna barneratuta izatea eta bergararra izateaz harro sentitzea. Identitate hori elikatzea eta garatzea arlo ezberdinetan: euskara, historia, ingurumena, paisaia, kultura, hezkuntza, hezkidetzak, berritzailea ...
- **Bizia:** aktiboa izatea pertsona bakoitza bere eremuan (familian, lanean, herrigintzan, kirol-jardunean...)
- **Kohesionatua:** kohesionatua lurraldearen (auzoak/herrigunea) eta pertsonen (gertuko harremanak dituena, belaunaldien arteko harremanak dituena eta desoreka ekonomiko eta sozial handiegirik gabekoa) ikuspegitik.
- **Atsegina:** bizitzeko herri atsegina izatea guztiontzat, egungo biztanle-kopurua mantenduz, eta bizi-kalitatea eskaintzen duena ikuspegi ekologiko, ekonomiko, pertsonal eta sozialetik.
- **Autogestionatua:** Autoantolatuta eta autogestionatuta den herri bat izatea.

Balioak: nolako herritarrak izan nahi dugu?

- Konfiantzan, errespetuan eta elkartasunean oinarritutako harremanak garatuko dituztenak.
- Euskaldun aktiboak: euskaraz bizi direnak.
- Ondarearekiko eta ingurumenarekiko kontzientziadunak eta errespetua duten pertsonak.
- Auzolanean eta elkarlanean parte hartzen duten pertsonak.
- Kontsumo arduratsua egiten duten pertsonak.
- Herriko garapenean parte hartzen dutenak (gazte, zahar, bertako, kanpoko), herriarekiko atxikimendua dutenak. Biziak, aktiboak (bakoitza bere esparruan), ekintzaileak, inplikatuak, ilusioz beteak.
- Sortzaileak eta berritzaileak.
- Kritiko eraikitzaileak.
- Emakume eta gizonen berdintasuna bultzatzen dutenak.
- Irekiak, garaia, egoera berriei, kultur artekotasunari, teknologia berriei, baina herri-nortasuna galtzeke.
- Kanpoko esperientziei zabalik dauden herritarrak, kanpoko ezagutza gure herrira egokitze gaitasuna daukana.
- Bere herria eta bere ingurua (mendiak, auzoak, historia...) ezagutzen dutenak

¹ Plan honetan herri hitza aipatzen dugunean, herria bere osotasunean adierazi nahi dugu: landa auzoak + inguruko auzoak + herrigunea.

ARDATZA: Herrigintza

ERRONKA NAGUSIA: Herriko arlo guztiak bilduko dituen Elkargunea diseinatzea eta martxan jartzea

LAN-ILDOA: Lidergoa

Helburuak

- Herriko arlo guztiak bilduko dituen Elkargunea diseinatu eta martxan jartzea. Elkargunea eragile politiko, ekonomiko, sozial, hezkuntza, kultura, kirol... eta abarrez osatuta eta elkarren artean artikulatuta egongo da. Herriaren ongizateari begira lan egingo du, interes indibidual edo sektorialetatik harago.
- Udalak jarrera proaktiboagoa izatea (funtzio asistentzialetik haragokoa) eta alor ezberdinetan ekimen berriak martxan jartzea, herriko eragile eta adituekin (ekonomiko, hezkuntza-eragile, aisialdikoak, kultura eta kirol alorrekoak...) elkarlanean .
- Herriaren kudeaketa parte hartzean oinarritzea, eta batez ere aldaketa-uneetan edo proiektu erabakigarrietan herritarren parte hartzea eta iritzia kontuan hartzea.
- Parte-hartzea, horizontaltasuna eta transbertsalitatea sustatzen duen Udala izatea, herritarrengandik gertu dagoena, herritarren hitza jasotzen duena eta herritarrekin lan egiten duena.
- Auzoek autonomia handiagoa izatea auzoko erabaki eta antolaketan, eta auzoen eta Udalaren arteko harremana eta koordinazioa hobetzea.

Ekintzak

- Elkargune hori antolatuko duen erakunde juridiko bat eratu, Bergarako aurreko lidergo sozialen irakaspentatik eta esperientziatik ikasiz. Erakunde horren esku egongo litzateke plangintza honen garapena, arlo bakoitzeko (ekonomia, politika, ongizate soziala, hezkuntza, kultura, kirola, aisialdia,...) eragileen artikulazioa, eta abar.
- Arlokako mahaia sortu, beharren arabera.
- Bergarako auzoen kudeaketa-eredua eta izaera juridiko-instituzionala definitu, horretarako beste esperientzia batzuk aztertuz eta horietatik ikasiz: auzo-elkarteak eta auzo-batzarrak bultzatu, auzo-alkatearen figura...
- Auzo(en) eta Udalaren arteko koordinazio-gunea indartu eta hobetu.

LAN-ILDOA: Herritarrak

Helburuak

- Herritarren parte-hartzea eta ekintzaitasuna sustatzea.
- Herritarren arteko kohesioa indartzea maila guztietan (adina, kultura, ekonomia...), harreman-sarea artikulatzea, gertuko harremanak garatzea... (slow food filosofiari jarraiki).
- Herritarren arteko elkarlana, auzolana, elkartasuna berreskuratzea.
- Etorrinak Bergaran integratzea (hartu eta emana sendotzea)

Ekintzak

- Herritarren parte-hartzea sustatzeko araudia landu.
- Herritarren parte-hartzea udaleko funtzionamenduan txertatu.

- Mugikortasun-eredua aldatu (ikus Lurralde antolamenduaren ardatza), oinezkoei (eta, beraz, harremani) lehenetsia emango dien herria sortu. Oinez eta bizikletaz mugitzeko eskubidea bermatu.
- Herriko hainbat konponketa edo lan auzolanean egiteko egunak antolatu.
- Denboraren bankuak sortu.
- Kuadrilen arteko herri-olinpiadak antolatu.
- Bertakoen eta etorritakoen arteko harremanak sendotzeko eta elkarrengandik ikasteko programa diseinatu eta garatu: eskubide eta betebeharrak, etorkintzako harrera-plana aztertu eta behar dituen egokitzapenak egin, kultura ezberdinen arteko topaketa-egunak, ...

LAN-ILDOA: Elkarteak (kirol-taldeak, kultura-taldeak, elkarte gastronomikoak...)

Helburuak

- Elkarteen arteko koordinazioa eta elkarlana sendotzea.
- Elkarteetan transmisioa bermatzea, eta belaunaldi berriak erakartzea.
- Elkarteak herriko proiektuetan integratzea.
- Eskualde mailako ikuspegia lantzea eta eskualdeko gainerako elkarteekin elkarlana sustatzea.

Ekintzak

- Elkarteak Lidergoan aipaturiko Elkargunean parte hartu.
- Elkarteek beraien artean behar duten egitura sortu (esate baterako, administrazio-mailan lagunduko duen norbait jarri, talde berriak sortzen laguntzeko, deialdien inguruan informatzeko...).
- Elkarte ezberdinek ekintza bateratuak antolatu: elkarte eguna/astea sortu
- Eskualde mailako elkarteen arteko harremanak garatzeko guneak sortu.

LAN-ILDOA: Gazteak

Helburuak

- Herriarekiko inplikazioa eta konpromisoa sendotzea
- Gazteen autogestioa bultzatzea.
- Gaztetxoentzako ingurunearen ezagutzarekin lotutako aisialdia sustatzea.

Ekintzak

- Herriko hezkuntza-erakundeekin herriarekiko atxikimendua eta konpromisoa duten haur eta gazte aktiboak hezteko programa diseinatu eta garatu.
- Egiten diren ekintzetara gazteak erakartzeko ekimenak egin.
- Herriko gazte konprometituak identifikatzea (Gaztetxea...) , eta plangintza honetatik sortuko diren lantalde edo gune ezberdinetan integratu.
- Gazteek herria eta inguruak ezagutzeko moduak aztertu eta abian jarri.
- Gazteek herrigintzan jarduteko formazioa bideratu, eskualdeko eragileekin elkarlanean (Bagara egitasmoa).

LAN-ILDOA: Jubilatuenak

Helburuak

- Zaharren jakituria eta bizi-esperientzia herriaren garapenean integratzea.
- Jubilazio aktiboa sustatzea.

Ekintzak

- Memoria historikoa berreskuratzeko eta ondarea zentzu zabalenean (ipuinak, kanta, jolasak...), biltzeko presazko ekimenak egin, sasoi hartako testigu izan zirenak hil aurretik. Taldean egin daiteke lan hau eta gero eskoletan zabaldu (gurasoei, esaterako).
- Belaunaldi ezberdinen arteko topaketak antolatu edo jakintza elkartrukatzeko guneak sortu: hezkuntza-zentroetara jubilatuek eraman euren bizi-esperientzia kontatzera (lehengo bizimodua, Bergarako edo Euskal Herriko historiako pasarte errealak, euskara eta euskal kultura,...) edo ikasleei herriko jubilatuekin egiteko lanak jarri; tailer-egunak antolatu jubilatuek herriko haur, gazte eta helduei eskulan batzuk irakasteko, etab.
- Herri-gunetik hurbil herritarrentzat eta jubilatuentzat egokitutako baratza txiki ekologikoak sortu eta nahi duenarentzat jubilatuen jakintza eta esperientzia eskura jarri.
- Plangintza honetatik sortuko diren lantalde edo gune ezberdinetan jubilatuek ere integratu, euren jakintza eta esperientzia partekatzeko.
- Bidegorrian edo gune jakin batzuetan jubilatuek ariketa fisikoa egiteko makinak jarri.

ARDATZA: Sozioekonomia

ERRONKA NAGUSIA: Ekintzailetasuna sektore guztietan (industria, merkataritza, turismoa, nekazaritza...) bultzatzea, herriko beharrei erantzunez.

LAN-ILDOA: Industria eta zerbitzuak

Helburuak

- Herriko aberastasun ekonomikoa sektore ezberdinetatik eratortzea (dibertsifikazioa).
- Ingurumenarekiko, herriarekiko eta gizartearekiko erantzukizuna duten enpresak garatzea. Herriaren beharrei begira lan egitea (eta ez soilik euren behar indibidualei): kalitatezko enplegua sortzea, herriko ekintzetan inplikatzeko, herriko gainerako eragileekiko elkarlanean aritzea, naturarekiko harremana zaintzea, kutsadura murriztea, herriko beharrei erantzuteko produktu edo zerbitzuak sortzea (eta, ondorioz, herriko eta gizarteko joera berriei adi egotea)...
- Herriko eta eskualdeko sinergiak aprobetxatzea, eta elkarlanean aritzea.
- Erabakigunea herrian edo eskualdean duten enpresak izatea Bergarako motor ekonomikoa.
- Enpresen lehiakortasuna berrikuntzan eta ezagutzan oinarritzea (kualifikazio altuko enpresak).
- Industria eta zerbitzuak artikulatzen dituzten enpresa-ereduak sortzea: zerbitzu aurreratuko enpresak.
- Bertako enplegua sustatzea.
- Bertako enpresak mantentzea eta kanpoko enpresak erakartzea.
- Pertsona ekintzaileak (enprendedoreak) bultzatzea.

Ekintzak

- Ikerketarako eta berrikuntzarako gunea diseinatu eta eraiki, herriko eragile ekonomiko eta hezkuntza-eragileen arteko lankidetzan oinarrituta. Enpresak, Udala, UNED eta Miguel Altuna elkarlanean arituko diren gunea izango litzateke.
- Enpresen sorrera bultzatzeko sustapen-plana landu eta garatu. Batez ere, herriko gazteek enpresa txikiak sortzeko formazioa, laguntzak (lokalak, diru-laguntzak...) bideratu eta Miguel Altuna Institutuak duena oinarri moduan hartu eta bultzatu.
- Herriko eragile ekonomikoen arteko elkargunea sortzea, Udalarekin elkarlanean (ikus Herrigintza ardatza, Elkargunearen ideia eta arlokako mahaiak).
- Herriko langabetuen errolda sortu eta herriko hainbat lan egiteko herriko langabetuak kontratatu, enplegua sustatzeko trebakuntza eskaini...
- Eskualdeko eragileekin elkarlanean jarduteko lankidetzaren gunea definitu eta martxan jarri. Eskualde mailako azpiegiturak edo zerbitzuak identifikatu.

LAN-ILDOA: Turismoa

Helburuak

- Turismo orekatua sustatzea.
- Turismo eskaintza zabala garatzea, Bergarako aberastasun arlo guztiak kontuan hartuta (ondare historiko-arkitektonikoa, ingurumena eta paisaia, lorategi botanikoa, gastronomia, tradizioa, industria, kultura-ikuskizunak, hezkuntza-zentroak (eta batez ere, unibertsitatea eta lanbide heziketa), herrigintza dinamikoak...).
- Eskaintza hori saltzeko estrategiak garatzea.
- Eskualdearekiko osagarritasuna kontuan hartzea.



Ekintzak

- Herriko eragile ekonomiko eta hezkuntza-erakundeen artean jardunaldiak edo simposiumak antolatu eta oihartzuna eman.
- Kulturaren arloko asteburuko topaketa edo tailerrak antolatu (kultura-adierazpen ezberdinak kontuan hartuta).
- Turismoa erakartzeko kultura-ekitaldi erakargarriak antolatu.
- Turismo familiarra erakartzeko paketeak sortu.
- Euskal Herriko turismoa erakartzeko plangintza egin.
- Gozogintzarekin, gastronomiarekin eta baserriko produktuekin lotutako azoka antolatu, prestigioa handitzeko.
- Bergarako Errege Seminarioaren museoa zabaldu.
- Ehungintzaren museoa sortu.
- Bergara 2020 egitasmo honen barruan lantzen ari diren gaien inguruko esperientzia-trukeak eta topaketak antolatu.
- Bergarako eskaintza turistiko zabalaren zabalkundea egin.
- Eskualdeko herriekin lankidetzan, Debagoienarako ibilbide turistiko ezberdinak diseinatu eta ezagutzera eman.

LAN-ILDOA: Merkataritza eta komertzioak

Helburuak

- Bergarako komertzioa berpiztea eta berritzea.
- Herritarrak bertan kontsumitzera bultzatzea.
- Turismoari eta bertakoei erantzuteko moduko eskaintza egotea (abuztuan edo asteburuetan, adibidez).
- Gertutasuna eta espezializazioa bultzatzea.
- Komertzio txikien arteko elkarlana sustatzea.

Ekintzak

- Bertako produktuak saldu.
- Erosketa-joera berriei egokitu (esate baterako, erosleak produktuak begiratzeko eta aukeratzeko askatasuna izatea).
- Herriko beharrei egokitutako komertzioak ireki (esate baterako, kirolerako eta kulturarako dagoen joerari erantzun).
- Komertzioak irekita egoteko bideak topatu (diru-laguntzak edo bestelako laguntzak).
- Kultura-ekitaldiak eta bestelakoak egin (zinea, ikuskizunak,...) herrian komertzioa zabalik mantentzeko.
- Komertzioari egokitutako azpiegiturak izan: aparkalekuak, mugikortasun orekatua eta peatonalizazio konpatiblea.

LAN-ILDOA: Nekazaritza

Helburuak

- Baserriko aktibitatea lan-alternatiba erreala izatea eta, ondorioz, baserri bizi den jende kopurua gehitzea (%25 inguru).
- Elikadura subiranotasunean sakontzea: tokian tokiko nekazaritza, kontsumitzen dena bertan ekoiztea, sasoiari sasoiko produktuez elikatzea, elikadura segurua izatea, nekazaritza ekologikoa sustatzea, nekazari eta herritarren arteko gertuko harremanak bultzatzea...

- Nekazal eta abeltzaintza lurrak babestea eta bultzatzea.
- Lehen sektorea laguntzea eta bultzatzea, erraztasunak emanez lurra transmititzeko, esate baterako, edota inguruak garbi mantentzeagatik (inguruak garbi ez badaude pasaian izango lukeen eraginagatik) laguntzak ematea.
- Alor honetan dihardutenen jakintzaren transmisioa bermatzea.
- Alor honetan ekintzaileak sortzea.
- Herritarren kontzientziazioan eragitea, sektore honen prestigioa eta balioa berreskuratzeko.

Ekintzak

- Herriko ikastetxe eta enpresetan dauden jangelak eta herriko jatetxeak bertako elikagaiez hornitu, ahal den neurrian, eta horretarako baserritarrek hitzarmenak sinatu.
- Herriko denda eta komertzioetan bertan ekoiztutako produktuak saldu.
- Kontsumo-taldeak sortu, baserritarrei lansari duin bat izatea ahalbidetuz, eta gertuko harremanak landuz.
- Produkzio ekologikoa diruz lagundu (krisi garaian, enpresa industrialei lagundu zaien moduan).
- Salmenta zuzena eta etxeko produktuen merkaturatzea sustatu, eta horretarako landa-auzoetan aktibitate ekonomikoak garatzeko aukera eta laguntzak izan (esate baterako araudi malguagoekin higiene eta osasun ikuspegitik).
- Bergarako baso publiko eta pribatuak kudeatzeko enpresa publiko bat sortu, lurren espekulazioa ekidingo duena, lurren transmisioa erraztuko duena eta baso-politika orekatu bat sustatuko duena (bertako espezie eta kanpoko espezieen arteko oreka).
- Basoak energia-iturri moduan erabiltzeko aukera aztertu (Aramaio edo beste herri batzuetako ereduak, esate baterako): egurra berogailuetarako energia-iturri moduan erabili, biomasaren ildotik. Beti ere kontuan hartuta basoak bestelako funtzio garrantzitsuak ere badituela eta energia-iturri bezala erabiltzekotan modu orekatuan erabili beharko lirakeela.
- Lanbide Heziketatik lehen sektorearen inguruko formazioa eskaini eta horretarako baserritarren jakintzaz baliatu (basoen kudeaketa, nekazaritza ekologikoa, abeltzaintza, balio erantsiko produktuak edo produktu elaboratuak kontserbak, etab-).
- Berrikuntza-gunean sektore honi lotutako ikerketa eta berrikuntza ere garatu (biomasaren inguruko ikerketa, adibidez).
- Lehen sektorearen bideragarritasuna bermatzeko, kooperatibak sortzeko aukera aztertu, kanpoko ereduak ezagutu eta aztertu (Suizako eredu adibidez).
- Hezkuntzatik kontzientziazioa landu, hezkuntza-komunitate osoarekin: irakasle-langile, ikasle eta gurasoekin. Apur bat slow food-aren filosofia zabaldu: elikadura osasuntsu eta seguruaren garrantzia, nekazaritza ekologikoaren garrantzia, kultura eta tradizio gastronomikoari jarraipena ematea, gure bizimodua desazeleratzeko beharra....

ARDATZA: Ingurumena

ERRONKA NAGUSIA: Natur baliabideak babestea, errespetaraztea eta energia gutxiago kontsumitzea, esperientziak martxan jarritz eta arautuz.

LAN-ILDOA: Natur baliabideak

Helburuak

- Naturarekiko harremana eta gertutasuna sendotzea.
- Erreka garbi eta erabilgarriak izatea eta ur-baliabideekiko harremana eraldatzea.
- Natur baliabideen kontsumo arduratsua sustatzea.
- Ingurumenarekiko kontzientziazioa eta sentsibilizazioa lantzea.
- Udalerriko biodibertsitatearen kontserbazioa bermatzea.
- Bergarako jasangarritasunaren inguruan (AG-21)
- onartutako ekintza-planeko (natur baliabideak eta biodibertsitatearen atala) helburuak eta ekintzak garatzea

Ekintzak

- Baso- eta ingurumen-politika orekatua diseinatu eta garatu, eta ingurumena hobetuko duten zuhaitzen landaketak ahalbideratu. Lur publikoetan zuhaitz desberdinak landatu, bertako espezieei abantailak emanez. (ikus Sozioekonomia)
- Ur-baliabideak aisialdirako eta osasun-iturri moduan erabili.
- Gune berdeak kontserbatu eta publikora zabaldu.
- Baratza ekologikoak bultzatu.
- Parkeak egoera onean mantendu.
- Eremu ureztagarriak kentzeko behar diren neurriak hartu.
- Paisaia zaintzeko eta mantentzeko behar diren neurriak hartu (esate baterako, baserritarrei diru-laguntzak eman eremu berdeak izateko).
- Ibilgailu eta motorren erabilerak arautu landa-eremuan.
- Lur urbanizaezinaren azterlana egin, lur-eremu ezberdinen sailkapena egiteko.
- Poligono industrialetako inguruak txukun mantendu, belarditxoak eta espaloiak.
- "Lekuko arauak" garatu
- Udalerriko biodibertsitatea eta paisaia kontserbatzeko eta berreskuratzeko estrategia definitu.
- Lehenengo sektoreko lurak direnak eta hainbat arrazoiengatik jabeek erabiltzen ez dituztenak, sektore horretarako mantendu premien arabera.
- Hezkuntzatik kontzientziazioa eta horren inguruko jakintza landu, hezkuntza-komunitate osoarekin: irakasle-langile, ikasle eta gurasoekin.
- Herritarrak sentsibilizatzeko kanpainaren bat egin: erakusketak, hitzaldiak, beste herri-eredu edo esperientzia batzuk ezagutzeko topaketak antolatzea...

LAN-ILDOA: Kutsadura

Helburuak

- Mugikortasun-eredu berria sortzea (ikus lurralde antolamendua).
- Energia gutxiago kontsumitzea.
- Energia berriztagarriak sustatzea.
- Dependentsia energetikoa murriztea.
- Enpresen isuriak zorrotzago kontrolatzea eta jaitsiera bideratzea



- Herritarren artean kontzientziazioa lantzea.

Ekintzak

- Oinezkoek lehentasuna izango duten herri-eredua sortu, eta beraz, motordun ibilgailuen erabilera murriztu. (ikus lurraldearen antolamendua ardatza).
- Energia berriztagarrietan gertatzen diren aldaketei adi egon eta horien erabilera sustatzeko kanpainak egin (esate baterako, ikastetxeetan, kirol-guneetan eta Udaleko ekipamenduetan energia berriztagarriak erabili).
- Berrikuntza-gunean energia berriztagarrien inguruko ikerketa eta berrikuntza ere kontuan hartu, Bergararen beharrak eta aukerak aztertuz. (ikus Sozioekonomia, berrikuntza-gunearen ideia).
- Enpresetan sortzen diren zikinak eta kutsadura kontrolatzeko jarduerak abian jarri.
- Kutsatutako lurren errekupezioa bideratu.
- Argiteria publikoaren erabilera arrazionala bultzatu.
- Bergaran energia ekoizteko egun dauden baliabideak aztertu (ikus Sozioekonomia, biomasaren ideia edo basoetako egurra berogailuetarako energia sortzeko iturri moduan erabiltzea).
- Hezkuntzatik kontzientziazioa landu, hezkuntza-komunitate osoarekin: irakasle-langile, ikasle eta gurasoekin.
- Herritarrak sentsibilizatzeko kanpainaren bat egin: erakusketak, hitzaldiak,...
- Aldian behin, gai bakoitzaren inguruan esperientzia pilotuak modu planifikatuan martxan jarri, baloratu eta horretan oinarrituz beste batzuk egin.

LAN-ILDOA: Hondakinak

Helburuak

- Hondakin gutxiago sortzea.
- Berrerabilera sustatzea.
- Gehiago birziklatzea.
- Herritarren artean kontzientziazioa lantzea.

Ekintzak

- Bertako eta kanpoko ekoizleak hondakinen inguruan kontzientziazteko programa diseinatu eta garatu, eta beren produktuetan material gutxiago erabiltzera bultzatu. Ekoizleei hondakinen bilketa antolatua egitea eskatu, horretarako arauak eta betebeharrak zehaztu eta horien jarraipena egin. Betetzen ez badira, isunak jarri.
- Materia organikoarekin konposta egiteko kanpaina egin (baserrietan, herri barruan...). Esate baterako, zenbait puntutan (lorategiak, parkeak...) konposta egiteko ontziak jarri, lorezainek horiek zaindu eta lortutako konposta eremu horretan erabili.
- Herritarren erosketa-ohiturak aldatu, eta bertako produktuen erosketa bultzatu.
- Bigarren eskuko produktuekin azokaren bat antolatu, edo herriko komertzioaren batean bigarren eskuko produktuak saldu.
- Birziklatze-kopuruak igotzea ahalbidetzen duten hondakinen kudeaketa-sistemak ezarri herritarrentzat, enpresentzat, baserritarrentzat, ikastetxeentzat... Esate baterako, atez-ateko sistema ezarri.
- Birziklapeneko adibide praktikoak egin jendeari zer non bota behar den erakusteko eta ohiturak aldatzeko.
- Produktu ontziratuak ahalik eta gutxien erabiltzeko kontzientzia landu.
- Hezkuntzatik kontzientziazioa landu, hezkuntza-komunitate osoarekin: irakasle-langile, ikasle eta gurasoekin.

- Herritarrak sentsibilizatzeko kanpainaren bat egin: produktuak konpontzeko tailerrak edo ikastaroak antolatu, produktuak trukatzeko eguna antolatu, kontsumo arduratsuaren inguruko hitzaldiak,...
- Inguruak ez zikintzeko kontzientziazioa landu eta ekintza zehatzak garatu.
- Inguruak garbitzeko auzolan-egunak antolatu.
- Garbigunea herrian dagoela ezagutzera eman eta erabilera bultzatu.
- Hondakin arriskutsuen eta hondakin-mota berrien inguruko azterketa egin.
- Oro har, kontzientziazioa lantzeaz gain, praktika zehatzak garatu modu antolatuan eta esperientzia pilotu gisa.

ARDATZA: Hezkuntza

ERRONKA NAGUSIA: Hezkuntza eragileen arteko elkarlana bultzatzea eta sendotzea

LAN-ILDOA: Hezkuntza

Helburuak

- Hezkuntza erakundeek herriari edo komunitateari begira lan egitea.
- Hezkuntza-erakundeen arteko harremana lantzea eta elkarlana bideratzea.
- Hezkuntza-erakundeak herriko gainerako eragileekin (ekonomikoak, kulturalak, kirolekoak, etab.) elkarlanean jardutea.
- 2020ra begira zehaztu ditugun baloreak lantzea: herritar aktiboak, sortzaileak, ekintzaileak, inplikatuak, kritikoak, solidarioak, kontsumo arduratsua egiten dutenak, kooperatiboak, euskaldun aktiboak, euskal komunikatzaile onak, ingurumenarekiko kontzientziadunak...
- Herriko beharrei (ekonomiko, sozial...) erantzungo dien herritarrak heztea.
- Eskola inklusiboaren oinarriak kontuan hartzea eta ikasle guztien berdintasunean oinarrituriko eta ikasle bakoitzaren garapen (intelektual, emozional, sozial, afektibo...) maximoa lortzera bideraturiko eskolak garatzea.
- Pedagogia alternatiboak jaso eta garatuko duen lekua sortzea.
- Ikastetxeetan ghettorik ez sortzeko politikak bultzatzea.
- Auzoetako eskola txikiak bultzatzea.
- Hezkuntza etengabea sustatzea, adin ezberdinetako bergararrak herriaren beharren arabera hezteko.

Ekintzak

- Euskal curriculum eta Bergarako curriculum landu eta irakatsi ikastetxeetan, euskal identitatea eta herri-identitatea sendotzeko: hizkuntza, kultura, inguruaren ezagutza, euskal kirolak...
- Ikastetxeetan eta hezkuntzako etapa guztietan plangintza honetan jasotako baloreak landu eta hezkuntza-eredua horretara egokitzeko plangintza diseinatu eta garatu: naturarekiko (basoak, ura, lurra, mendiak, biodibertsitatea...) harremana landu, kontsumo arduratsuen garrantzia, gauza zaharren balioa, eskubide eta betebeharrak irakatsi, gauzak konpontzen ikasi, eskulana, norbere emozioak ezagutu, pertsona arteko harremanak landu (adin ezberdinetakoak), elkarlana eta talde lana, sormena, parte-hartzea, herriarekiko atxikimendua eta herritar aktiboak (egileak eta eragileak) sortu, ahozotasuna lantzeko proiektuak bideratu (antzerkia, bertsogintza...)...
- Ikastetxe eta herriko eragileen arteko elkarlana sustatzeko ekintzak, hala nola: jubilatutako ikastetxeetara joatea euren bizi-esperientziak kontatzen edo eskulana erakustera; ikastetxeak herriko museoetara joatea, etab.
- Berrikuntza eta ikerketarako gunea sortu, sare zientifiko-teknologiko-erakundeak, enpresa munduarekin elkarlanean. Miguel Altunaren toki aldaketa aprobetxatu daiteke horretarako.
- Unibertsitateak egiten diren ikerketa-lanak edo tesiak herriaren beharrei erantzun, ahal den neurrian.
- Unibertsitateko eta Lanbide Heziketako zentroetako eskaintza egokitu, etorkizuneko gizartearen beharren arabera, lan-esparru berrien arabera eta plangintza honetan jasotako proiektu estrategikoen arabera: gizartearen zahartzeari lotutako lanbideak, energia berriztagarriak, lehen sektoreari lotutako formazioa (basoen kudeaketa, nekazaritza ekologikoa, abeltzaintza, balio erantsiko produktuak edo produktu elaboratuak kontserbak, etab), Bergarako turismo-plangintzari lotutako formazioa, etab.

- Kulturaren alorra jorratuko duen goi-mailako irakaskuntza eskaini herrian (musika-irakasle izateko ikasketak, esaterako, MUko HUHEZI fakultatearekin lankidetzan).
- Ikastetxeen arteko elkarlanerako gunea sortu edo daudenak indartu edo elkarrekin egin ditzaketen ekintzak identifikatu eta elkarrekin antolatu.
- Hezkuntza-erakundeek eskola-kirolaren inguruan hausnartu, herriko gainerako eragileekin batera: zein balio landu kirolaren bitartez...
- Eskola-kirola kudeatzeko tokiko edo eskualde mailako egiturak sortu (Leintz bailarako, Oarsoaldekoako edo Elgoibarko ereduari jarraiki).

ARDATZA: Euskara eta euskalduntasuna

ERRONKA NAGUSIA: Bergara euskararen arnas gunea izatea

LAN-ILDOA: Euskara eta euskalduntasuna

Helburuak

- Euskararen presentzia eta erabilera alor guztietan areagotzea eta euskara bizirik egotea: administrazioa, lan-mundua, aisialdia, kirola, kultura, gazteak, hedabideak...
- Euskara lehentasunezko hizkuntza izatea eta, ondorioz, Bergara euskararen arnas gunea izatea.
- Hizkuntzarekiko maitasuna bultzatzea.
- Euskal nortasuna eta identitatea elikatzea eta sendotzea.
- Euskalduntasun irekia garatzea, gure identitatea oinarri moduan hartuta beste identitateekiko irekidura lantzea.
- Etorkinen integrazioa sustatzea (hizkuntza+kultura+...).
- Herrian eta eskualdean hizkuntzaren inguruan lanean diharduten eragile ezberdinen arteko elkarlana sustatzea (Jardun euskara-elkartea, Udala, mankomunitatea...).

Ekintzak

- Euskara Biziberritzeko Plan Nagusi berria diseinatu eta garatu (2012-2015) honako arlotan (teknologia berriak, familia, hedabideak, administrazioa, aisia, kultura, kirola, euskalduntze, alfabetatzea).
- **Administrazioa:** Udalaren ordenantzak egin, garatu eta gauzatu.
- **Hezkuntza:**
 - ⇒ Hezkuntzako maila guztietan euskara, euskal nortasuna eta kultura, eta oinarrizko soziolinguistika landu, irakasle, ikasle eta gurasoekin, guztiak motibatzeke eta kontzientziatzeko (euskal curriculum eta Bergarako curriculum).
 - ⇒ Ikastetxeak elkarlanean ekintzak antolatu, hizkuntza eta identitatea landuz (Santa Ageda, haratuzteak, gabonak...)
 - ⇒ Ikastetxeetan Bergarako euskara eta hitanoa landu, batez ere gazteen artean.
- **Kirola:** Kirol entrentzaileekin hizkuntzaren gaia landu, haur eta gazteek kirol-jarduna euskaraz egin dezaten.
- **Ikerketa:** Euskara eta euskaltasunarekin loturiko ikerketak sustatu edo Bergarako izaera kontuan hartu egiten diren ikerketetan (UNEDen edo berrikuntza-gune berrian).
- **Euskalduntzea / alfabetatzea:**
 - ⇒ Adin batetik aurrera euskara-gaitasuna hobetzeko ikastaroak edo saioak eskaini, alfabetatzen hasteko...
 - ⇒ Kaleko euskara ulertu eta ikasteko ikastaroak antolatu etorkinentzat eta oro har herritarrentzat.
 - ⇒ Hizkuntz eskola ofiziala ekarri.

ARDATZA: Lurralde antolamendua

ERRONKA NAGUSIA: Biztanleria mantentzera bideratutako etxebizitza-politika garatzea eta herri atsegina lortzeko mugikortasun-eredua lantzea.

LAN-ILDOA: Mugikortasun-eredua

Helburuak

- Oinezkoek eta bizikletariak lehentasuna izango duten herri-eredua sortzea (eta, ondorioz, motordun ibilgailuen erabilera murriztea).
- Auzo eta herri-gunearen arteko lurralde-kohesioa lortzea.
- Garraio publikoaren erabilera sustatzea, auzoen arteko eta herritik kanporako desplazamenduetarako.

Ekintzak

- Herri-gunean oinezkoentzako guneak sortu, herriak muga batzuk dituela ahaztu gabe (peatonalizazioa, inguruan aparkalekuak jarri eta kotxe partikularrak debekatu).
- Haurrak txikitatik ohitu eskolara oinez edo bizikletaz joaten (baita auzoetatik ere). Horretarako, beste herri batzuetako esperientzietatik ikasi: haurrak oinez eskutik helduta irakasle baten laguntzarekin.
- Bidegorri-sarea zabaldu eta oinezkoentzako bideak egokitu, auzo eta herri-gunearen artean eta Bergara eta inguruko herrien artean. Azpiegitura handirik ez, soilik oinez edo bizikletaz mugitu ahal izateko bidezidorra, lehendik dauden bideak aprobetxatuz eta diru askorik gastatu gabe. (Adibidez: Bidegorria Amillagatik hasi eta Labegaraietaraino, ibai ondotik egin. Bergaratik Uberara edo Elgetara kolektorearen obra aprobetxatuz).
- Herriko kaleak eta ekipamenduak elbarrientzako egokitu.
- Bizikletak aparkatzeko guneak ezarri herrian zehar.
- Bizikletak alokatzeko sistema ezarri (hiriburuetako sistema).
- Kotxearen erabilera murrizteko kontzientziazio- eta sentsibilizazio-kanpainak egin.
- Garraio publikoaren eskaintza zabaldu eta eskaintza hori jakinarazi.
- Garraio publikoa poligono industrialetara eraman.
- Urbanoa autobus geltoki nagusian gelditu.
- Energia berriztagarrietan oinarrituriko garraio-sistemak bultzatu, adibidez, alokairuko ibilgailu elektrikoak jarri.
- Eskualde mailako tranbien sarea martxan jarri.
- San Juango poligono industrialerako bidea egokitu bi kamioi pasatu ahal izateko.
- Alde zaharrean ondarea errespetatu, irisgarritasun ikuspegia bermatuz.

LAN-ILDOA: Etxebizitza-politika

Helburuak

- Etxebizitzak beharren arabera eraikitzea, eta eraiki behar badira, babes ofizialekoak edo tasatuak bultzatzea (ikus diagnostikoa, une honetan berriak egiteko behar handirik ez da ikusi herri-gunean, bai, ordea, auzoetan).
- Etxe hutsak merkaturatzea.
- Alokairuaren kultura eta politika sustatzea.
- Etxebizitzak gizartearen beharrei egokitzea.

- Ekoeraikuntza sustatzea eta lurra ahalik eta gutxien okupatzea.

Ekintzak

- Etxe hutsentzat irtenbideak bilatu (alokairua, etab.), egindako azterketan oinarrituta.
- Baserri hutsen inguruko politika landu, galdu eta erori ez daitezen. Baserri eraikinak egungo premia eta aukeretak ahalbidetzea. Baserri eraikin zaharrei eusteko filosofia eta laguntzak.
- Nagusiei eta premia bereziak (fisikoki edo psikologikoki autonomia ez dutenak) dituztenei egokitutako etxebizitzak edo etxebizitza tutelatuak izan, hainbat zerbitzurekin: garbigailu eta sukalde komunak, etab.
- Tamaina ezberdineko etxebizitza-motak izatea, herriko behar ezberdinei erantzuteko: bakarrik bizi diren pertsonak, bikoteak, familiak, gazteak (elkarrekin konpartitza), etab.
- Etxeak egiteko beharra badago, babestutako etxeak eta etxe libreak kokagune berdinetan jarri, eraikinak tartekatuta eta beraien artean nahastuta.
- Etxebizitzaren errehabilitazioa bultzatu eta alde zaharreko eraikinak berritzeko araudia egokitu, jendea herriko gune berrietara joan ez dadin.
- Eremu degradatuak errekueratu eta eraikinen ordezkapenak bultzatu, lur berriak okupatu gabe.
- Etxebizitza kooperatibak sortu, eskualde mailan kooperatibagintzan dagoen esperientziaz baliatuz.
- Ilogailuak jarri etxebizitzetan.
- Etxebizitzaren eraikuntzan ekoeraikuntzako eta ingurumenari begirako irizpideak kontuan hartu.

LAN-ILDOA: Zerbitzu eta ekipamenduak

Helburuak

- Herriko zerbitzu eta ekipamenduak gizartearen joera eta erronka berriei egokitzea.
- Lurra aurreikustea behar berrietarako.
- Energia berriztagarriak erabiltzea herriko ekipamenduetan.
- Eskualdeko ikuspegia izatea eta beste herriei elkarlanean aritzea.

Ekintzak

- Zaharren egoitza toki aproposagoan jarri, aldapa eta eskailerarik gabe (bai egoiliarrentzako, bai bisitariarentzako).
- Zaharren egoitza eta eguneko zentroa plaza gehiagorako egokitu.
- Auzoetan jubilatutako elkartzeko lokalak jarri.
- Berrikuntza eta ikerketarako gunea sortu (ikus sozioekonomia).
- Auditoriuma edo erabilera anitzeko aretoa egin (ikus kultura).
- Errege Seminarioan museoa zabaldu.
- Bisitarien harrera-gune berria jarri.
- Hilerriaren kokapena berraztertu.
- Udaleko ekipamenduetan nahiz herriko gainerako ekipamenduetan irisgarritasun ikuspegia bermatu.
- Kirol-, kultura- eta bestelako zerbitzuetan eskualdearekiko osagarritasuna bermatu, eta horretarako azterketa egin.

LAN-ILDOA: Azpiegitura handiak

Helburuak

- Egingo diren azpiegitura handiek herriari ekar diezazkieten onurak eta kalteak aztertzea eta horren arabera jardutea.

Ekintzak

- Herritik pasatzen diren azpiegiturak egingo dituzten enpresei onurak eskatu. Adibidez, autopista bertatik igarotzen bada, sarrera-irteerak eduki edo gasolindegi bat ezarri herritarrentzako lanpostuak sortuz.
- Azpiegituren ondorioz sortzen diren kalteak konpondu eta ahalik eta egoera egokienean utzi.

LAN-ILDOA: Landa-auzoak eta herri inguruko auzoak

Helburuak

- Auzoak bizirik mantentzea eta auzo-identitatea garatzea.
- Biztanleria gutxieneko bat bideratzea eta bermatzea.
- Auzoek autonomia handiagoa izatea auzoko erabakietan, eta Udalarekiko harremana eta koordinazioa hobetzea (ikus Herrigintza).
- Auzoen eta herriaren arteko elkarlana sustatzea. (Ikus Herrigintza).

Ekintzak

- Etxebizitzak eraiki, beharrak dituzten auzoetan, bertakoak zein kanpokoak auzoan bizitzeko.
- Oinarrizko zerbitzuak bermatu: interneta, telefonoa, farmazia, kutxazaina, dendak...
- Aktibitate ekonomikoak sustatu auzoetan: etxeko produktuak eta artisau produktuak zuzenean saltzeko aukera, komertzioak irekitzeko erraztasunak izan, turismoa sustatzerakoan auzoak ere kontuan hartu, lehen sektorea suspertu... (ikus Sozioekonomia)
- Aisialdi-guneak edo zentro zibikoak sortu: ludoteka, txiki-txokoak, auzoko talde ezberdinentzat bilgunea (gazteak, zaharrak, emakumeak, etorkinak...)
- Eskola txikien eredua mantentzea eta sendotu, haurrak euren auzoekiko atxikimendua gara dezaten. Halaber, herriko ikastetxeetan Bergarako auzoen inguruko ezagutza eta aberastasuna transmititu.
- Herri-gunearekiko komunikazioa hobetu: urbanoaren ordutegia zabaldu eta autobus-geltokietan jarri, ikastetxeetako ordutegiak garraio publikoarekin bat etorri, oinez edo bizikletaz herrira joateko bideak txukundu, herrian aparkatzeko erraztasunak izan (baserritarrentzat aparkatzeko txartela esaterako)... Ikus 1. Puntua, mugikortasun-eredua.

Kultura eta kirola

ERRONKA NAGUSIA: Kultura-adierazpenerako erreferentziatzko gunea egitea. Kirolean, herri guztian oinezkoei lehentasuna ematea

LAN-ILDOA: Kultura

Helburuak

- Herri mailako kultura elkarteak sortzea, kultura-adierazpen guztiak batuko dituen eta herriko kultura-eragileak koordinatuko dituen.
- Herriko kultura-sorkuntza gizarteratzeko eta herriko dinamika kulturala garatzeko erreferentziatzko guneak izatea.
- Kultura sorkuntza edo ekoizpena areagotzeko baliabideak eta laguntzak egotea.
- Antzerkigintza sustatzea.
- Udalak taldeei utzitako lokalen betebeharrak eta eskubideen araudia zehaztea.
- Kultura zientifikoa sustatzea, kultura kontzeptu orokorraren osagai bezala.
- Kulturako ekintzak egiterako ondorengo zehar-lerroak kontuan hartzea: Euskara, genero-berdintasuna, jasangarritasuna, irisgarritasuna...
- Kultura alorrean bailaran erreferente izatea.
- Eskualde mailako ikuspegia lantzea.

Ekintzak

- Kultura-elkarteak koordinatzeko gunea sortu.
- Auditoriuma edo erabilera anitzeko aretoaren eredia definitu (osaera, funtzionamendua eta kudeaketa-eredua, eskaintza-mota, helburuak...) eta martxan jarri. Horretarako herrian dauden ekipamenduen azterketa egin, kokalekua erabakitzeko (ekipamendu erlijiosoak aprobetxagarriak eta baliogarriak dira?), eskualde mailako beharren azterketa egin, eta inguruan dauden ereduak azterketa egin (kafe-antzoikiaren eredia, etab.).
- Bergarako Errege Seminarioaren Museoa ireki: historia eta ondarea balioan jartzeko, kultura eskaintza osatzeko, kultura zientifikoa zabaltzeko.
- "Musika-egunak" antolatu, herriko musikariek, eta dantzarako tradizioa berreskuratu (plazan erromeria irakasle batekin, esaterako).
- Aldiro-aldiro herriko kultur talde guztien artean ekitaldi bateratuak egin.
- Musika-eskola herriko arte eszeniko guztien eskola izan.
- Eskolan antzerkirako zaletasuna landu.
- Herrian antzerki taldea sortu.
- Bertso eskola indartu.
- Euskal Herriko euskal dantza eskola nazionala bultzatu eta garatu.
- Arte plastikoaren eskola sortu (pintura, eskultura, artisautza...).
- Liburutegiaren irigarritasun baldintzak bete.
- Udalak taldeekin adostu utzitako lokalen ardurak.
- Bergarako historia erakusteko museoa egin (ehungintza, zientzia, gastronomia, ondarea...).
- Kultur ekintzak landa auzoetara eta herri inguruko auzoetara ireki.
- Kultur agerpen desberdinak beste arlo batzuekin elkarlanean egin (komertzioa, turismoa...).
- Herrian egon beharreko ekipamendu eta zerbitzuak, eta eskualdean egon beharrekoak identifikatu.
- Eskualde osoko taldeekin ekitaldi bereziak antolatu (ikuskitun kulturalak, jardunaldi edo simposiumak...).

LAN-ILDOA: Kirola

Helburuak

- Eragile ezberdinen arteko elkarlana eta hausnarketa sustatzea.
- Kirolaren esparru ezberdinei erantzuteko (eskola kirola, partaidetza kirola eta errendimenduko kirola) egitura garatzea.
- Udala kiroldegia kudeatzetik kirola kudeatzera pasatzea, eta adin eta herritar sektore ezberdinak erakartzeko estrategia berriak lantzea.
- Kirola gizartearen joerei egokitzea (gizartearen zahartzeari, esaterako).
- Kirolaren adiera zabaltzea eta egunerokotasunean txertatzea, eta osasunarekin, ingurumenarekin eta ongizatearekin lotzea.
- Desplazamendu aktiboa sustatzea.
- Eskualde mailako ikuspegia lantzea, sinergiak aprobetxatzeko.

Ekintzak

- Kirol esparruetarako egitasmoa garatu, bi ardatzekin: a) eraiki, berri eta zabalduko diren esparruak eta b) eraikita dauden esparruen mantenua.
- Herri mailako kirol elkarteak sortu, kirol mota ezberdinak barnebilduko dituen, herri mailan jarduten duten kirol-eragile ezberdinak koordinatuko dituen (elkartek, udala, gimnasioak, eskolak...), eta partaidetza kirolari eta eskola-kirolari erantzungo diona.
- Errendimendu kirolari begira, eskualde mailako kirol-taldeak sortzeko aukerak aztertu.
- Pol Pol mendi taldeko sailak elkartu entitate juridiko bakar batean, eta kultur-kirol-ingurumen egitasmo bateratua sortu.
- Pista estaliak, umeek jolasteko aterpeak eta aisialdi libreko estalpe eremuak eraiki. (Esate baterako, Ikastetxeetako jolas parkeak estaltzea edota Seminarioko estalpea)
- Labegaraieta kirol federatu eta eskola-kirolen ardatz bihurtzeko inbertsioak egin.
- Herri barruko "sare ez motorizatua" udalerriko gerriko berde eta landa lurrekin lotu: GR, PR, orientazio, errepide- eta mendi-bizikleta bideak (ikus. Lurralde antolamenduaren ardatza, mugikortasun-eredua). Trenbide zaharraren sarea egokitu oinezkoentzat. Horretarako, lehenbizi bide publiko eta pribatuen inbentarioa egin.
- Kirol-ekipamenduak irisgarritasun aldetik egokitu.
- Piraguismo egiteko aukera eskaini Deba ibaian edo Deba inguruan aisialdirako gunea jarri, bainatzeko aukerarekin.
- Herrian egon beharreko eta eskualdean egon beharreko zerbitzu eta ekipamenduak zehaztu.